

Elena Tregubova

Elena Tregubova (1973ko maiatzaren 24a) Moscow State University-n lizentziatu zen Kazetaritzan. *Nezavisimaya Gazeta* egunkarian ekin zion lanbidearen jardunari. 1997 eta 2001 urteen artean Kremlin-go Press Pooleko kide gisa aritu zen, estaldura mediatikoa eskaini zielarik lehendakari errusiarrei (Boris Yeltsin eta, ondoren, Vladimir Putin) *Moscow dailies Kommersant* independenterako, *Izvestia*, eta *Rusky Telegraph*. Epe honetan zehar, Kremlin-go goi-kargu askorekin elkarrizketatu zen, Vladimir Putin, Alexander Voloshin eta Anatoliy Chubais barne.

Hasieratik Tregubovaren informazioek kritika agertzen zioten Kremlin-ari, honen ondorioz laster eragotzi zioten txosten ofizial eta agiriatarako sarbidea. Andrey Vasiliev, bere editore-buruak, Kremling-aren presioaren aurrean amore eman zuen eta 2000 urte amaieran, ordezkatu egin zuten Kremlin Press Pool-ean Tregubova, komunikabide bereko beste kazetari batek hartu zuen bere postua.

2003ko urrian, *Kremlin-go hondeatzaile baten ipuinak* (Moscow: Ad Marginem) *best-seller*-a argitaratu zuen. Kremlin-ean kazetari gisa izan zuen esperientzia jasotzen du liburuak. Bereziki, Putinen Gobernuak kritikatzeko bere larderiazko jarrera, komunikabideen kontrola, zentsurak eta adierazpen askatasunaren aurkako erasoak salatuz. Argitaratu ostean, Tregubovak galdu egin zuen *Kommersan*-en berri-emaile gisa zuen lana. Bere liburua argitaratu eta gutxira, 2004eko otsailaren 2an, bonba batek eztanda egin zuen Moskuko bere etxebizitzaren atearan, kalte materialak eraginez. “Bandalismo arrunteko ekintza” gisa izendatu zuen gertakaria poliziak. Tregubovak idazten jarraitu zuen, oraingo honetan bere liburuaren berrikusitako edizioa, Alemanian argitaratuko zena titulu zirikatzaileago batekin oraingo honetan, *Kremlin-go mutanteak* (2004), bera erailtzeko saiakera bat izan zela salatzen duelarik.

Testuinguru honetan, Anna Politkovskaya, Kremlina behin eta berriz salatu zuen kazetaria eta Txetxenian ematen ziren giza-eskubideen bortxaketen aurkako kanpaina egin zuena, erail egin zuten bere Moskuko apartamentuaren sarreran bertan,

Tregubovaren bizilekutik hamar minutura oinez. Politkovskayaren heriotzaren eta Moskuko Pushkin plazako protesten ondoren, Putinek egunak eman zituen Errusiako ikerkuntza kazetari ospetsuaren hilketaren aurrean erreakzionatu baino lehen: “Bere heriotzak kalte gehiago egin dio Errusiari bere erreportajeek baino”. Tregubovak zera idatzi zuen: “aurpegian txistua botatzea modukoa izan zen ez bakarrik hari eta bere familiari, baizik eta kazetarien komunitate guztiari”.

Etxean isiltasuna nagusitzen zen bitartean, Tregubovak gutun irekia idatzi zion Angela Merkel Alemaniako kantzilerrari, egun haietan Putinekin biltzen zena, erailketa politikoak, giza-eskubideen bortxaketak eta Errusian ematen zen adierazpen eta prentsa askatasunaren suntsiketa amaitu zitezen exijitu zitzala eskatzen ziolarik.

Adierazpen askatasuna Errusian

Glasnost-en Defentsarako Fundazioak eta Muturreko Egoeretako Kazetaritzarako Zentroak jasotako datuen arabera, Errusiak adierazpen askatasuna ezarri zuenetik eskubide konstituzional gisa, 1993an hain zuzen ere, 152 kazetari izan dira erailak guztira. Elena Tregubovak irmo adierazten du: “Ez naiz isilik geratuko, egiten badut isilean hilko nautelako. Kazetaritza da nire arma bakarra”. Kremlin-aren aurka egindako kritika gogorrek direla eta jaso dituen heriotza mehatxuen aurrean, 2007ko apirilean Tregubovak babes politikoa lortu zuen Britainia Handian bere bizitza arriskuan sentitzeagatik.